



Iñaki Laskurain agurgarria,

Durango Rugby Taldeko Zuzendaritza-Batzordetik ondorengo idatzia helarazten dizugu erantzun edo ohar argigarri moduan, 2019ko abenduaren 13ko dataz igorri zenigun eskutitzaren harira.

Momentu oro argi utzi nahi dugu gure asmoa eraikitzailea dela.

Bi pertsonak eztabaidatzen dutenean, gaiaz interesa dutela dierazten dute. Ikuspuntu honetatik, argi dugu bai Euskadiko Errugbi Federazioari zein DRTri euskara interesatzen zaigula eta jakitun gara, errugbian, euskararen normalizazioan guztiok dugula eginbeharra.

Aurreko guztia esanda, aipamena egin nahi dugu zure eskutitzean diozun bi kontuz, zeinetean bat egiten ez dugun.

Batetik, klubok ez dugula Matchready euskaraz izatearen eskaera egin aipatzen duzu. Guk ez dugu beste klubaren errealitatea ezagutzen baina DRTtik emaila bidali genuen desira hau adieraziz. Eta federakuntzako beste partaide batzuei, hitzez, eskaera berdina egin genien.

Bestetik, guk klubentzako Matchready sistema gazteleraz erabiltzen dugula aurpegiatzen diguzu, eta arrazoi duzu; baina ez duzu alderdi garrantzitsu bat ezagutzen.

Iaz, jokalaria senior bat liberatu genuen klubentzako Matchready sistema euskarara itzuli zezan eta lan karga itzela zela ikusirik Durangoko Udalaren Euskara Zerbitzuari laguntza eskatu genion. Itzulpen osoa 2019ko uztailaren 9an bidali genuen Matchreadyra.

Ikusten duzunez, gure aldetik ahalegina egin dugu Matchready euskaraz erabiltzeko.

Gai honetaz eta beste batzuetaz denbora askoan hitz egiten jarraitzeko asmoz, agur beroa helarazten dizugu.

Zure eskuetan uzten dugu ohar hau zuen web orrietan eta sare sozialetan publiko egitea edo ez.

Durangon 2020ko urtarrilaren 8an

Durango Rugby Taldeko Zuzendaritza-Batzordea



OHARRA:

Txapeleketak eta lizentziak kudeatzeko sistema euskaraz erabiltzeko prest dagoenaren eskutitza jaso berri dugu.

Lorpen honetan bakoitzari dagokion neurrian, zorionak guztiei.